



13. AKTA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA, 2007ko azaroaren 16an izandakoa.

TOKIA: Pasaiako hirian eta bertako udaletxean.

DATA: Bi mila eta zazpiko azaroaren hamaseian.

BERTARATU DIRA:

Ander Poza Olabide j.
Iñaki Garmendia Agirregabiria j.
Alvaro Ricón Rivera j. eta
Obdu Lorenzo de Dios a.

Burua:

Maidier Ziganda Población, alkatea.

Lehenengo deialdian, Maidier Ziganda Población alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta udal idazkaria bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko. Edurne Baztarrika Bilbao andreak bere ezin etorria justifikatu du.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak, 14:00etan bilkurari hasiera eman dio, eta gai-zerrendako puntu hauek aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzarreko akta irakurri eta onartzea: 12. akta, 07-10-11koa.

Bertaratuek goiburuan aipatutako akta aztertu dute, eta Tokiko Gobernu Batzarrak onartzea erabaki du, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, eta akta hori dagokion Akta Liburuan jasotzea.

2.- Kontu eta fakturen zerrenda: 11/07.

Gobernu Batzordeak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako kontu eta fakturak onartzea erabaki du:

11/07 zka.

Zenbatekoa: ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA BAT MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA HIRU XENTIMO (741.632,03 euro).



3.- 1. obra ziurtagiria: "Pasai Donibaneko Donibane kaleko 98. zenbakian lur-jausi bat horma berde bidez egonkortzeko lanak."

Gobernu Batzordeak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako ziurtagiria onartzea erabaki du:

1. zenbakia.

Obra: "Pasai Donibaneko Donibane kaleko 98. zenbakian lur-jausi bat horma berde bidez egonkortzeko lanak."

Enpresa kontratista: ACUÑA, S.A.

Obra-zuzendaria: Ikerlur, S.L.

Zenbatekoa: HOGEITA HAMAIIKA MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HIRU EURO ETA LAUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (31.743,89 euro).

Honako xedatutik ordainduko da: indarrean dagoen aurrekontuko X-910/07.

4.- 2. obra ziurtagiria: "Pasai Donibaneko Donibane kaleko 98. zenbakian lur-jausi bat horma berde bidez egonkortzeko lanak."

Gobernu Batzordeak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako ziurtagiria onartzea erabaki du:

2. zenbakia.

Obra: "Pasai Donibaneko Donibane kaleko 98. zenbakian lur-jausi bat horma berde bidez egonkortzeko lanak."

Enpresa kontratista: ACUÑA, S.A.

Obra-zuzendaria: Ikerlur, S.L.

Zenbatekoa: HOGEITA ZORTZI MILA EHUN ETA BERROGEITA BOST EURO ETA BERROGEITA HAMASEI ZENTIMO (28.145,56 euro).

Honako xedatutik ordainduko da: indarrean dagoen aurrekontuko X-910/07.

5.- Irungo Berritzeguneari diru-laguntza. Bidasoako XXIII. jardunaldi pedagogikoak.



Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi-ordezkariak 2007ko urriaren 8an egindako proposamena aztertuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez,

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- IRUNGO BERRITZEGUNEARI 250 euroko diru-laguntza ematea, Bidasoako XXIII. Jardunaldi Pedagogikokoak antolatzeko.

Hori guztia udal-aurrekontuko 05-481-451-10-01 partidatik eta A-1032/07 baimendutik ordainduko da.

BIGARRENA.- Akordio honen berri ematea interesdunari, eta honen aurka aurkez daitezkeen errekurtsioen berri ere ematea.

6.- 2006/2007 ikasturtean euskara ikasten aritu diren pasaitarrei diru-laguntzak.

Pasaiako Udalak diru-laguntzak ematen dizkien euskara ikasten ari diren pasaitarrei. Horretarako zehaztutako irizpideak ezarrita, eta Euskara Batzordearen buruaren 2007ko irailaren 28ko proposamenari jarraiki, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez,

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Euskara ikasten ari diren honako pasaitar hauei aipatutako diru-laguntza ematea:

LANDA ARRIETA, SARA	39,50 €
SUAREZ SAEZ, NEKANE	184,50 €
RODRIGUEZ BORDA, M ^a DOLORES	50,50 €

GUZTIRA	274,50 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesdunari, baita aurkez ditzakeen errekurtsioen berri ere.

Hori guztia “10 481 455 10 01, euskararen aldeko diru-laguntzak” partidatik ordainduko da, eta indarrean dagoen udal-aurrekontuko A-1031/07 baimendutik.

7.- UDA 2007 Kirol kanpainarengatik hainbat klubei diru-laguntzak.

2007ko urriaren 15eko Gazteria eta Kiroleko Zinegotzi-Delegatuaren proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez,

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Jarraian aipatzen diren entitateei 2007 UDA Kirol Kanpainarengatik ondorengo diru-laguntzak ematea:

- KOXTAPE-PIRAGÜISMO.....	2.058 €
- CLUB ATLÉTICO TRINTXERPE	384 €
TOTAL	2.442 €

Hori guztia “06-481-452-10-01 Kirol entitateak” partidatik ordainduko da, eta indarrean dagoen udal-aurrekontuko A-1101/07 baimendutik.

8.- Kultur egitarauentzako diru-laguntzak.

2007ko urriaren 22ko Kultura eta Hezkuntzako Udal Batzorde Informatiboaren proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez,

E R A B A K I D U

LEHENENGOA.- Jarraian agertzen diren Kultur Elkarteei 2007. urtean burututako kultur programei dagokien diru-laguntzak ematea onartzea; hau da, 32.043,40 euroko diru-laguntzak ematea.

Urteko diru-laguntzak		
Elkartea	Diru-laguntza	%75
Alkartasuna Dantza taldea	3.033,32 €	2.274,99 €
Basari elkartea	1.500,00 €	1.125,00 €
Bonantza auzo elkartea	1.714,49 €	1.285,87 €
C.A.S. Azkuene	1.780,43 €	1.335,32 €
C.A.S. Gatzaga	1.516,66 €	1.137,50 €
Fato cultural <i>Daniel Castelao</i>	1.780,43 €	1.335,32 €
Gure Kalparra bizilag. elk.	2.176,08 €	1.632,06 €
Itsas gela	2.242,02 €	1.681,52 €
Kexaldi	1.780,43 €	1.335,32 €
Lagun Artea	1.780,43 €	1.335,32 €

Trintxer Kulturala	5.539,11 €	4.154,33 €
Guztira	24.843,40 €	16.357,56 €

Diru-laguntza bereziak			
Elkartea	Ekintza	Diru-laguntza	%75
Trintxer Kulturala	Laburmetraien erakustaldia	6.500,00 €	4.875,00 €

Ezohiko dirulaguntzak			
Elkartea	Ekintza	Diru-laguntza	%75
S.C.R. La Armonía	Xakearen 50. lehiaketa	700,00 €	525,00 €

Kultur egitarauentzako diru-laguntzak emateko oinarrien 11. puntuaren arabera, diru-laguntzak bi alditan ordainduko dira:

- % 75, diru-laguntza onartzen duen erabakia jasotzean.
- Gainerako % 25, gastuak justifikatu ondoren.

Hau guztia indarrean dagoen udal-aurrekontuko 05.481.451.10.01 partidaren kontura eta A-1118/07 baimendutik ordainduko da.

BIGARRENA.- Akordio honen nahiz aurkez ditzaketen errekurtsoen berri ematea interesatuei.

9.- Koxtape Arraun Elkarteari diru-laguntza elkartearen lokalak eraiki eta egokitzeko.

Gai hau mahai ganean geratzen da espedientea osatu arte, hau da, Koxtape Arraun Elkartearen eta Pasaiako Udalaren artean hitzarmena sinatzen ez den bitartean. Hitzarmen horrek Klubak hartu behar dituen konpromisoak eta betebeharrak jaso behar ditu.



10.- Gabonetako haur jaiarako aisialdi taldeei diru-laguntzak.

2007ko azaroaren 12ko Gazteria eta Kiroleko Zinegotzi Delegatuaren proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Jarraian aipatzen diren aisialdi taldeei honako diru-laguntzak ematea 2007ko Gabonetako Haur Jaia prestatzeko:

TXIMISTA.....	1.652 €
EKAITZA.....	1.254 €
BOVEDA.....	1.254 €
KANTAURI LUDIKO ELKARTEA	1.002 €
ZIRIPOTZ.....	1.652 €

TOTAL 6.814 €

BIGARRENA.- Diru-laguntza hau datorren 2007ko abenduaren 10ean egingo diren ordainketetan ordainduko da. Egintza honetan bertan dagoen Alkateak hala agindu duelako.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri ematea interesdunei, eta honen aurka aurkez daitezkeen errekurtsoen berri ere ematea.

Hori guztia udal-aurrekontuko 06-481-456-20-03 “Gazte Taldeak” eta A-1167/07 baimendutik ordainduko da.

11- Udal tasetan diru-laguntzak: ura, zaborra eta estolderia, eta hiri-kontribuzioa

Gizarte ekintza sailetik bideratu dira uraren, estolderiaren eta zaborren tasak ordaintzeko dirulaguntza-eskaerak, espedientean ageri diren zergadunek aurkeztutakoak.

Zerga-bilketa eta Errenta sailak eskaera guztiak dagokion Normaren arabera aztertu eta gero.

2007ko azaroaren 14ko Gizarte Ekintza Saileko Zinegotzi Delegatuaren proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU



LEHENENGOA.- Diru-laguntza ematea behar bezala bideratutako espedientean ageri diren onuradunei, guztira 3.994,12euro.

BIGARRENA.- Akordio honen berri ematea interesdunari, eta honen aurka aurkez daitezkeen errekurtsoen berri ere ematea.

Hori guztia udal-aurrekontuko 04.480.313.90.01 partidatik eta A-1188/07 baimendutik ordainduko da.

- Gai-zerrendatik kanpo eta bertaratutako zinegotzi guztien aho batez bertan sartzea berretsi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartu ditu:

12.- Kontu eta fakturen zerrenda: 12/07.

Gobernu Batzordeak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako kontu eta fakturak onartzea erabaki du:

12/07 zka.

Zenbatekoa: ZAZPI MILA ETA BERREHUN EURO (7.200,00 euro).

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 14:45ean amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkariak, akta hau egiten dut, alkatearen oniritziarekin.